






Alpinista PAT-AGONIKOA.




SAMOVAR: «Uste nuen presioa gutxitu egiten zela altuerarekin».



Lehenbiziko rapela.



Ez ulertua.



GIDARIRIK GABE. TIRACOLETE (irakurtzen): «Gailurrean zelai zoragarria dago... Entzun, Samovar, uste dut mendiz okertu garela!».

Samivel

Belatxingen begiradapean...

Marraskilari frantziarraren libururik ezagunena kaleratu dute, oraindik orain, gazteleraz

Ramon Olasagasti. «Alpinista eta artista urtu egiten dira zuregan filosofoa sortzeko, beti xarmaz amets egin eta behatzen duen filosofoa. Eta mendia hazi egiten da zure orrialdeetan, pertsonaiak txikiak baitira, izan ere; pertsona hilkor eta ausart arruntak besterik ez». Guido Reyk *Soul l'eil des choucas... ou les plaisirs de l'alpinisme* (Belatxingen begiradapean... edo alpinismoaren plazerak) liburuaren lehen edizioarako (1931) idatzitako hitzaurrearen pasarte bat da goikoa. Desnivel argitaletxeak Samivelen lehen liburu hura gaztelaniaz argitaratu berri duen honetan, marrazkilari frantziarraren lapitz traza finarekin erretratatu dezagun nor izan zen Samivel, lerro gutxitan. Gero, bere biñetek egin dezatela berba.


Marraskilari, idazle, zinemagile, musikari, hizlari —«orquestra gizon» definitzen zuen bere burua— baina ororen gainetik, mendiaren maitale sutsua zen Samivel. Mendia ulertzeko zuen modua ironia finez eta pertsonaia maitagarriez islatzen da bere marrazkietan: gidari eta bezeroak, alpinista erromantikoak, turistak, sokalagun betikoak... hainbat pertsonaia erretratatu izan ditu Samivelek, eta haren marrazki bikainenek, denboraren muga guztiak gainditu, eta egungo mendizale-tasuna islatzeko ere balio dute.

Samivel, Paul Gayet-Tancrede da sortzez; Charles Dickens *Pickwick Taldearen hilondoko paperak* liburutik hartu zuen ezizena. 1907an jaio zen, eta 1992an hil. Mende ia osoko ibilbidean, mendiko kulturaren habe sendoak jaso zituen, eta Frantziako alpinismoaren mugak gainditu. Frantziako Goimendi Taldeko kide izan zen gaztetan, elite taldeko kide, alegia; garai hartan, hainbat lehen igoera egin zituen Trelatze inguruan. Laster hasi zen karikaturak eta marrazkiak egiten ere; Club Alpin Francais (CAF) taldearen *La Montagne* aldizkarian argitaratu ziren lehenbiziko haiek; eta, lasterrera, Parisko argitaletxe batek marrazki bilduma bat egiteko proposatu zion. 1932an argitaratu zen *Belatxingen begiradapean* hau, hain zuzen.

Gero, beste batzuk etorri ziren: *-10°C, Neiges* (1937), *L'opera de pics* (1944), *Bons-hommes de neige* (1947) etab. *Alphonse Daudeten Tartarin sur les Alpes* liburu eza-gunaren ilustrazioak ere bereak dira. Literatura liburuak ere baditu batzuk: *L'amateur d'abîmes* (1940), *Contes a pic* (1951) edo *Le fou d'Edenberg* (1967), guztien artean ezagunenak. Mendiko literaturako



LEHEN IGOERA: Nola izan zen....



...eta nola kontaktzen duten.

hainbat sari irabazi zituen liburu horiekin. Zineman ere eman zuen berea, eta, adibidez, *Cimes et merveilles* filmarekin Trentoko zinemaldiaren sari nagusia eskuratu zuen 1952an. Bere lanak, osotasunean harturik, umorea, kritika zolia eta burutsua, sotiltasuna eta eleganzia nahasten ditu. Mendiaren eta pertsonaren arteko harremana irudikatzen duten ipuinak dira bere marrazkiak. Mendiari zion maitasuna leial transmititzen duten irudiak.

SAMIVEL

Bajo la mirada de las chovas... o los placeres del alpinismo'

Egilea: Samivel
Argitaletxea: Desnivel
Orrialdeak: 68

80 ilustrazio zuri-beltzean
Prezioa: 14,50 Euro